

AGINDUA, HEZKUNTZAKO SAILBURUARENA, ZEINAREN BIDEZ AURRETIKO KONTSULTA EGITEN BAITA EUSKAL ESKOLA PUBLIKOAREN KONTSEILUA SORTZEKO XEDAPEN OROKORRA EGIN AURRETIK.

2022ko uztailaren 15ean, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legea argitaratu zen EHAAn. Lege horrek beste testu artikulatu oso batean sartzen eta biltzen ditu xedapen orokorrak egiteko prozeduraren arloko arau guztiak, eta orain arte indarrean zegoen Legea ordeztzen du, 8/2003 Legea, abenduaren 22koa, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurarena.

Zehazki, 11. artikuluan, zeina herritarrei alde zuzeneko kontsulta egiteari buruzkoa baita, hau zehazten da:

“1. Xedapen orokorraren izapidetzea sustatzen duen organoak edo zuzendaritza-zentroak, testu juridiko arauemaileen proposamenak idatzi baino lehen, kontsulta publikoaren bidez bilduko du gizarteak duen iritzia. Herritarrei zuzendutako alde zuzeneko kontsulta-izapide horretan, behar diren neurriak hartuko dira, ziurtatzeko, batetik, gizon eta emakumeen ordezkariak orekatua, eta, bestetik, arautzekoa den alorrean edo sektorean berdintasuna bultzatzen duten elkarten parte-hartzea. Halaber, hizkuntza-eskubideak errespetatuko zaizkio alde zuzeneko kontsultetan parte hartzen duen orori, administrazio langile zein herritarra izan.

2. Alde zuzeneko kontsulta kapitulu honetan araututako prestaketa-fasean sartzen da. Izan ere, herritarrekiko interakzio izapidea da, zeina halako moldez egingo baita, non xedapenaren hartzaile izan daitezkeen pertsona guztiek aukera izango duten iritzia emateko, behar besteko epean, berau hamabost egun baino gutxiagokoa izan gabe, eta testu juridiko jakin bat onartu baino lehen.

3. Alde zuzeneko kontsultaren izapidea xedapen orokorraren izapidetzea sustatzen duen zuzendaritza-zentro edo -organoak bete ahal izango du, iragarkia Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan jarrita. Alderdi hauekin lotutako informazioa iragarriko da: araua onestearen premia eta egokitasuna, arauaren xedeak, ekimen horrekin konpondu nahi diren arazoak eta izan litezkeen bestelako aukera erregulatuak eta ez-erregulatuak; eta herritarrei gonbidapena egingo zaie iragarritako informazioari buruzko iritzia eman dezaten.

4. Artikulu honetan aurreikusitako herritarren parte-hartzearen eskakizuna betetzat jo dezake testu juridiko arauemaile bat alde zuzeneko onetsi ondorengo araugintza-prozedurako instrukzio-faseko entzunaldi eta informazio publikoaren izapideak. Memorian horrela jasota utzi behar da, hala bada.”

Hezkuntza Sailak Euskal Eskola Publikoaren Kontseilua sortzeko dekretu-proiektua egiten hasteko asmoa du.

Xedapen Orokorrak egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearekin bat etorritik, herritarrek araudia egiteko prozeduran parte har dezaten sustatze aldera, arau-proiektua egin baino lehen, kontsulta publikoaren aldi bat irekitzen da, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren web-atariaren bidez, herritarren iritzia eta etorkizuneko araudiaren eragin handiena jasango duten erakunde esanguratsuenen iritzia jaso ahal izateko, honako gai honekin lotuta:

1.- Ekimenarekin konpondu nahi diren arazoak:

Euskal Eskola Publikoaren Kontseilua funtsezko tresna da hezkuntza-eragileek euskal hezkuntza-sistema publikoaren gobernantzan benetan parte hartzen dutela bermatzeko. Gaur egun, EAEko hezkuntza-sistemaren esparruan, ez dago eginkizun hori berariaz antolatzen duen organorik. Ordezkari-espazio formalik ez izateak ikastetxe publikoek beren premiak, proposamenak eta ebaluazioak hezkuntza-instituzioetara bideratzeko duten ahalmena mugatzen du. Horrek sistemaren barne-kohesioari eragiten dio, bai eta hezkuntza-zerbitzu publikoaren kalitateari eta ekitateari ere.

2.- Proiektututako erregulazioaren beharra eta indarrean dagoen araudia.



Erregulazio horren beharra Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzaren abenduaren 21eko 17/2023 Legearen 58. artikuluan jasotako aginduan oinarritzen da; izan ere, artikulua horretan Euskal Eskola Publikoaren Kontseilua sortzea xedatzen da, ikastetxe publikoen partaidetzarako erakundea izateko eta haien lana ikusarazteko. Gaur egun, ez dago arau-esparrurik kontseilu horren eraketa, osaera, funtzioak eta jarduteko prozedurak arautzeko. Horregatik, ezinbestekoa da kontseilua sortzea eta eraginkor bihurtzea ahalbidetuko duen arau-xedapen bat egitea, ordezkari eta aipatutako legean ezarritako helburuak beteko direla bermatzeko.

3.- Arauaren helburuak

- Euskal Eskola Publikoaren Kontseilua sortzea, hezkuntza publikoaren eremuko partaidetza eta aholkularitza-organo izan dadin.
- Kontseiluaren osaera, egitura eta eginkizunak ezartzea, hezkuntza publikoaren partaide diren eragile guztiak ordezkaturik egongo direla bermatzeko, hala nola ikasleak, familiak, irakasleak, irakasle ez diren langileak eta toki-entitateak.
- Ikastetxe publikoen arteko lankidetzak eta ideia- eta proposamen-trukea bultzatzea, gizarte- eta lurralde-ingurunean integrazioa sendotuz.
- Hezkuntza-sistema publikoaren kalitatea, ekitatea eta iraunkortasuna sustatzea, eragileen partaidetza aktibo eta koordinatuaren bidez.
- Kontseilu honen gomendioak eta proposamenak jasotzeko mekanismoak antolatzea, hezkuntza-arloko plangintzan eta erabakietan kontuan har daitezkeen.

4.- Izan litezkeen bestelako aukera erregulatuak eta ez-erregulatuak.

4.1.- Aukera ez-erregulatuak:

Euskal Eskola Publikoaren Kontseilua sortzeko, alderdi interesdunekin akordioak edo hitzarmenak egin daitezke, hala nola ikastetxeen elkarteekin, irakasleen erakundeekin eta tartean dauden beste eragile batzuekin. Baina aukera horrek ez luke behar adinako sendotasun juridiko eta formalik izango kontseiluaren jarraitutasuna eta eraginkortasuna bermatzeko. Arau-esparru espezifikorik ez izateak hezkuntza-sistema publikoaren gobernantzan eraginkortasunez esku hartzeko gaitasuna mugatuko luke, eta horrek zaildu, Euskal Hezkuntzaren Legean parte-hartzeari, ordezkagarritasunari eta gardentasunari buruz ezarritako printzipioak betetzea.

4.2.- Aukera erregulatuak:

Euskal Eskola Publikoaren Kontseiluaren sorrera, osaera, eginkizunak eta eraginkortasuna modu integralean arautuko dituen dekretu bat onartzea da lehentasunezko aukera, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzaren abenduaren 21eko 17/2023 Legearen 58. artikuluan xedatutakoa kontuan hartuta. Ikuspegi horrek esparru juridiko argi eta egonkor bat bermatuko luke, eta hezkuntzako eragile guztiak partaidetza-eremu formal baten barruan egituratzea ahalbidetuko. Gainera, indarrean dagoen araudiak sustatzen dituen gobernantza parte-hartzailearen, berdintasunaren, ekitatearen eta gardentasunaren printzipioekiko koherentzia ziurtatuko luke.

Euskal Hezkuntzaren Legeak 58. artikuluan ezartzen du Euskal Eskola Publikoaren Kontseilua partaidetza-organo izateko sortzeko dela, ikastetxe publikoen lanari eta hezkuntza-lorpenei ikusgarritasuna emateko. Zazpigarren xedapen gehigarrian, berriz, kontseiluaren egitura eta eginkizunak erregelamendu bidez garatzeko agindua ematen du. Kontuan hartuta lege hori 2024ko otsailaren 15ean jarri zela indarrean, Kontseilua arautuko duen dekretu-proiektua izapidetzen hasia egokia dela uste da. Aurreikusitako erregulazioa da eskola publiko kalitatezkoa, inklusiboa eta ekitatiboa bermatzeko biderik eraginkorrena, legearen helburu orokorretan zehazten den moduan.

Horregatik, kontsulta publiko hau egiten da:

- Eremua: Erakunde publiko eta pertsona fisiko guztiei egiten zaie kontsulta, bai eta etorkizuneko arauzko erregulazio honek ukituko dituela uste den antolakunde, entitate edo elkarteei ere.

- Argitaratzea: Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren web-atarian, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren Egoitza Elektronikoaren iragarki-taulan, Legegunean eta Irekian.

- Epea: Hamabost egun balioduneko epea ezartzen da, ukitutako erakundeek, herritarrek eta haien entitateek egoki iritzitako iradokizunak eta oharrak aurkez ditzaten.

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 11. artikuluan xedatutakoa betetzeko egiten da kontsulta publikoaren izapide hau, araudia prestatzeko fasearen barruan eta dekretu-proiektua egin aurretik.

Hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 19ko 381/2024 Dekretuak esleitzen dizkidan eskumenei jarraikiz, hau

XEDATZEN DUT:

1. Kontsulta publikoaren izapidea egitea, Euskal Eskola Publikoaren Kontseilua sortzea arautzen duen xedapen orokorraren proiektuari, proiektua egiten hasi aurretik.

2. Herritarrei eta arauak ukituko dituen entitateei dei egitea agindu honetan azaltzen diren alderdiei buruzko iritzia eman ditzaten. Horretarako, hamabost egun balioduneko epea izango dute, agindu hau Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren web-atarian, Egoitza Elektronikoaren iragarki-taulan, Legegunean eta Irekian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

3. Gai hauek aztertuko dira kontsulta publikoan:

- Ekimenaren bitartez konpondu nahi diren arazoak.
- Proiektatutako erregulazioaren beharra eta indarrean dagoen araudia.
- Arauaren helburuak.
- Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzailerik eta ez-erregulatzailerik.

4. Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 11. artikuluan xedatutakoa betetzeko egiten da kontsulta publikoaren izapide hau, arau-proiektua egin aurretik eta lege horrek erregulatzen duen prestaketa-fasearen barruan.

Vitoria-Gasteiz, sinadura elektronikoaren eguna.

BEGOÑA PEDROSA LOBATO
HEZKUNTZAKO SAILBURUA